

IZENA EMATEKO FITXA

Ikastetxearen IDa

1. Ikastetxeak izena ematen du

Solidaritatearen aldeko orri-markatzaileak programan parte hartu nahi izanez gero, eman izena 2018ko otsailaren 19a baino lehen eta bidali bitarteko hauetako bat erabiliz.

Eman izena webgunean
savethechildren.es/centros-educativos/

Bidali mezu elektroniko
bat helbide honetara
diadellibro@savethechildren.org

Deitu telefonoz
91 513 05 00

Bidali faxez
91 552 32 72

2. Materiala doan jasoko duzue ikastetxean

Ikastetxearen datuak

Izena
Helbidea PK
Herria Probintzia Telefonoa
Helbide elektronikoa

Parte hartuko duen ikasle kopurua (gutxi gorab.) **Parte hartuko duten irakasleak**

- Orri-markatzaileen txantiloia (Mesedez, ahalik eta kopuru zehatzenak adierazi. Horrela, hobeto kudeatu ahal izango dugu materiala. Materialen bat behar ez baduzue, idatzi zero dagokion laukitxoan.)
- Diplomak
- Irakurlearen txartela

3. Zuen datuak behar ditugu informazioa bidaltzeko

Jardueraren koordinatzailea

Izen-abizenak
Helbide elektronikoa
Kargua edo irakasgaia Telefonoa

Parte hartuko duen irakaslea

Izen-abizenak
Helbide elektronikoa
Kargua edo irakasgaia Telefonoa

Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, jakinarazten zaizu datu pertsonalak Save the Children Fundazioaren jabetzeko fitxategi batean bilduko direla. Fundazioaren helbidea c/ Doctor Esquerdo, 138, 2º planta, 28007, Madril da eta datuen xedea administratiboki kudeatzea izango da, baita jarduera solidarioei buruzko informazioa ematea ere. DBLOren 11.1 artikulua betetz, berariaz jakinarazten dizugu zure datu pertsonalen berri eman diezaikegula gaien eskumena duten administrazio publikoei eta hirugarrenei, ikertzeko eta hobetzeko xedez. Datuak atzitzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko edo uko egiteko eskubideak gauza ditzaizue idatzi bat bidaltza aurrez adierazitako helbidera.



HAMAR URTE SOLIDARITATEAN NABARMENTZEN

Liburuek eta irakurketak neska-mutilen bizitza aberasten dute. Save the Children erakundeak 10 urte daramatzagu horretan. Eta denbora horretan, 3.000 ikastetxek baino gehiagok Liburuaren Eguna solidario bihurtu dute, 500.000 ikaslek baino gehiagok bizitzak salbatzen laguntzen duten orri-markatzaileak egin dituzte eta 30.000 irakaslek ikasleekin haurren eskubideak lantzeko materiala jaso dute.

Ikasturte honetan zure ikastetxeak ere parte hartzea nahiko genuke urteurren honetan.

“CEIP Profesora María Doña ikastetxean (Los Palacios y Villafranca, Sevilla) ez dugu aukera polit hau galdu nahi izan eta Save the Children-ek antolatutako «Solidaritatearen aldeko orri-markatzaileak» ekintzaren IX. edizioan parte hartzeko izena eman dugu. Gure eskolan jarrera solidarioak sortu nahi izaten ditugu gure ikasleen artean, solidaritatea ezinbesteko balore gisa finkatzeko eta gure eskolako eguneroko jardueran txertatzeko. Gure ikasleek oso ongi pasatu zuten jarduera honekin eta gogo handiz aritu ziren orri-markatzaileekin ahalik eta dohaintza gehien biltzeko... eta lortu ere lortu zuten! Familien laguntza ere eskertu nahi dugu, noski, oso solidarioak izan ohi baitira halako ekimenetan.”

SOLIDARITATEAREN ALDEKO ORRI-MARKATZAILEAK



Save the Children



Neska-mutilen
eskubideen aldeko

**Liburuaren Eguna
solidarioaren
X. edizioa**

Larrialdia Hego Sudanen

Neska-mutilek laguntza behar dute

Eman zure eskolaren izena!

NESKA-MUTILENTZAT **AUKERA** BIHURTUKO DIREN ORRI-MARKATZAILEAK

Liburuaren Eguna une berezia da eskoletan. Irakurmena protagonista bihurtzen den eguna da, baina Hego Sudan bezalako herrialdetako neska-mutil askorentzat, irakurtzea eta egunero ikastetxera joatea erronka bat da, eta helburu hori lortzeko, desnutrizioa gaingitu behar dute, modu erregularrean joan behar dute eskolara eta mehatxu guztien aurka babestuta egon behar dute.



1,4 mil. haur gosez hiltzeko arriskuan daude Hego Sudan, Somalia, Nigeria eta Yemen bezalako herrialdeetan

Nazio Batuen Erakundeak gosetea aitortu du Hego Sudango eskualde batzuetan eta ohartarazi du beste herrialde batzuk ere bide bera jarrai dezaketela ez badugu ezer egiten saihesteko.

Gosea eta pobrezia egunero gaiztotzen ari dira Afrikan, lehorte luzeek, gatazkek, uza-faltek, prezio-igoerek... bizirautea erronka bihurtzen dute eta neska-mutilak izan ohi dira beti ahulenak. Arrazoiak desberdinak dira, baina ondorioa beti bera da: txikienen sufrimendua.

Garaiz gabiltza haur horien bizitzak salbatzeko, baina zuek bezala haurrekin konprometituta daudenen laguntza behar dugu, ezin dugu bakarrik egin.

PARTE-HARTZEA OSO ERRAZA DA

ZURE LAGUNTZA BEHAR DUGU GURE LANAREKIN JARRAITZEKO

Haurrek biziraun ahal izateko, Hego Sudan bezalako herrialdeetan haurren desnutrizioaren aurka garatzen ditugun programak babestuko dituen **proiektu solidario**, hezitzaile eta balioak lantzen dituen batean parte hartzera gonbidatzen zaitugu. Horrela, milaka haur osasuntsu hazi ahal izango dira eta etorkizun hobea izan ahal izateko ikasi ahal izango dute.

Liburuaren Eguna solidario bihurtzera animatzen zaitugu, ikasleek apaiandutako eta saldutako orri-markatzaile bidez. Horrela, orri-markatzaile horiek haur ahulenak bizirauteko aukera bihurtuko dira.

Keinu erraz horrekin, zure ikastetxeko ikasleak lehenak izango dira parte hartzen, sormenaren bidez, berenak ez bezalako beste errealitate batzuk ezagutzen eta gutxien dutenei laguntzeko konpromisoa hartzen.



1.

Proposamen didaktikoek gaiaz sentsibilizatzen lagunduko dute eta haurren eskubideak landu ahal izan dira ziklo desberdinetan, orri-markatzaileak egin aurretik.

2.

Ikasle bakoitzak **orri-markatzailearen txantilo bat** (5 txantiloiko), **diplomak eta irakurlearen txartela** izango ditu. **Ikastetxeak doan jasoko du material guztia.**



Orri-markatzaile berezi batek haur baten desnutrizioa saihesten lagun dezake. Keinu erraza da, eta bizitzaz betetzea.

Hezkuntza da gure lehentasuna. Hego Sudango haurren bizirautea ziurtatzen badugu, beren hezkuntza ere ziurtatu ahal izango dugu, pobreziarekin amaitzeko tresna eraginkorrena baita. Baina bizkor jarduten ez badugu, bizitza guztian garapen fisikoari eta intelektualari eragingo dieten ondorio larriak jasan ditzakete neska-mutilek. **Zenbateko txikiekin gauza handiak lortzen dira.**



2,5 €-rekin soilik haur batek esne teraupetikoa jaso dezake astebetez pisua azkar lortzeko.



5 €-rekin adingabeei indarrak berreskuratzen laguntzen dien errehidratatzeko gatzak bana ditzakegu, berriz ere jaten has daitezten.



15 €-rekin haur batek desnutrizio larria gaingitu dezake.



3.

Orri-markatzailea apaindu baino lehen, ikasleek orri-markatzaileak **eskainiko dizkien irakurle solidarioetan pentsatu behar dute**, pertsonalizatuak egin baititzakete.

4.

Neska-mutilek etxera eramango dituzte orri-markatzaileak eta gurasoei eta senideei emango dizkiete zenbateko txiki baten truke saltzeko (0,50 €, 1 €...). Marrazkien bidez dagoeneko laguntzen diete Hego Sudango haurrei eta orain gurasoak eta senideak animatuko dituzte laguntzera.



5.

Laguntzeko, guztiek **irakurlearen txartel** bat izango dute, bildutako dirua zertara bideratuko den azaltzeko




6.

Ikasleek **diploma** bat jasoko dute beren ahalegina eskertzeko.

7.

Ikastetxeak lortutako dirua bildu eta Save the Children erakundeari emango dio, trukean diploma bat eta txosten bat jasoz ikasturte amaieran.



Esre-ren istorioa



Esre eta bere seme John kolera tratatzeko zentrora iritsi ziren Mingkaman-era. Johnnek desnutrizio larria zuen, eta berehala hasi zitzaion zainen bidez likidoak eta elikagai terapeutikoak emateko tratamendua ematen. Johnnen kasua ez da isolatua, haurrek, eta batez ere bost urtez azpikoek, dute heriotza-arrisku handiena, desnutrizio akutua jasateko gaitasun txikiena dutelako eta elgorria, malaria eta kolera bezalako gaixotasunak izateko sentiberagoak direlako.

LIBURUAREN EGUN SOLIDARIOAK ZURE ESKOLAKO IRAKURKETA-PLANARI LAGUNDUKO DIO

Irakurketa estimulatzeko eta bultzatzeko jardura bihur daiteke, beste kultura eta errealitate batzuk ezagutuz eta hezkuntzak neska-mutilen bizitza eraldatzeko duen indarra ezagutuz.

Gonbidatu ikasleak orri-markatzaile solidarioak egitera. Lan horren bitartez ikasiko dute

- **Ahalegina** balore gisa.
- **Solidarioak** izaten,
- Gutxien dutenei laguntzeko **konpromisoa**.
- **Dutena** baloratzen.

Laguntzaileak:

TOURLINE EXPRESS

cit

BE INSPIRED
Being a citizen